

2. AHOZKO ULERMENA

Entzun **Arrantzaleen mahonezko jantziak** testua eta adierazi esaldiak egia ala gezurra diren.

- Hainbat herritako gizon-emakumeak antzinako arrantzaleen gisan janzten dira oraindik jaiak ospatzeko.
- Horrelakoetan, neskek eta emakumeek soilik erabiltzen dute koadrodun zapia.
- Arrantzaleek lehen baserritarren antzeko jantziak erabiltzen zituzten.
- Brusak egiteko, itsasontzietako oihal zaharren zatiak erabiltzen zituzten askotan.
- Mahonezko oihala Joan den mendearen hasieran erabiltzen hasi ziren.
- Hasiera batean, jaiegunetan bakarrik erabiltzen zituzten arrantzaleek mahonez egindako jantziak.



Entzun **Makaleko aurkikuntza** testua eta erantzun.

- Nor ari dira hizketan?
- Nola du izena txakurrak?
- Zer aurkitu du?
- Zer egingo zenuke zuk horrelako aurkikuntzaren bat eginez gero?
- Nori deituko zenioke?

Entzun **Duela milioika urte** testua eta aukeratu erantzun zuzenak.

Duela milioika urte, zer zegoen gehienbat gaur egun Euskal Herria dagoen tokian?

- Zuhaitzak.
- Kostaldea.
- Itsasoa.

Nolakoa zen klima?

- Beroa.
- Hotz samarra.
- Oso hotza.

Non ez dira azaldu dinosauroen hondarrak?

- Araban.
- Lapurdin.
- Nafarroan.

Non aurkitu dituzte 10 dinosauro espezieren lorratzak?

- Gasteizen.
- Urbanan.
- Lañun.

Duela zenbat milioi urte desagertu ziren dinosauroak?

- 100 milioi urte.
- 65 milioi urte.
- 5 milioi urte.